

BESTE LEKUETAN ERE...

Unai Villena
Elgoibar, 17 urte

Pantailako hizki mugikorren distirara zuzendu dut begirada, beste oharren bat luzatu behar omen dute. Halaxe da, emakumezko baten ahotsak *"The departure of the flight with destination Bilbao is going to be delayed"* dio, frantsesez errepikatzen duelarik.

Oraindik azken garagardo beltzak burrunbaka dabilta ene sabelean eta erretzen ari naizen beltzaren keak, lauso atsegina sortzen du nire inguruan. Kristalezko ateez bestalde, taxiak amaigabe-ko ilara osatzen dute eta jendea batetik bestera doa opariz betetako poltsekin. Nik ez daramat oparirik.

Zigarroari beste zupada bat eman diot, jadanik desegina den ke-lainoa berritzezaren, eta egitera noanaren zentzua aurkitu nahirik, baldin eta hutsetik hasteak, itzultzeak zentzurik badu: Izuak, damuaren mamuak, berriro kolpatzen nau, oroitzapenek berriz, laztandu besterik ez naute egiten. Zigarroari azken zupada eman eta lurrera bota dut, itzali eta edozeinek, patuak ni zapaldu izan nauen eran, gupidarik gabe zapal dezan.

Euskal Herria utzi nueneko garaiak datozkit burura, Pariseko kale zaharkituetan emandako azken gauekin batera...

17 urterekin mundua arras handia iruditzen zaigu. Buruz ikastearen ondorioz besterik ezagu-

tzen ez ditugun Europako hiriburu horietako baten izena aipatzen digutenean, oso urrun dagoe-la datorkigu burura, eta ederra behar duela izan, gure herri txikia baino askoz ederragoa, hobea...

Uda hartan 17 urte nituen. Herriko jaietan, neska arrotz gazte bat herriratu zen. Paraje haue-tan oso ugariak ez diren begi urdinak zituen eta adats argikoa zen, bertako gazteoi deigarria gerta-tu zitzaiguna. Guztiak hurbildu ziren banan-banan neskatxa “ezagutzera” bere begi urdinei ezeze, zeraman gona motzari begirik kendu ezinik. Baina neska “ezagutzeko” saiakerak xelebren bezain alfe-rrikakoak gertatu ziren. “You are oso polita” eta “Nahi al duzu nirekin dancing?”-en artean nahasi-ta baino nahasiago utzi baitzuten neska.

Nola jakin gabe, nik han amaitu nuen neska harekin hizketan edo horretan saiatzen behintzat. Hala ere, ez genuen hitz askoren beharrik izan eta azkar asko igarri nuen neska haren gustukoa nin-tzela. Gaua aurrera zihoan, gu han aritu ginen eda-ten eta dantzan gure hormona aztoratuek beste zerbait eskatu ziguten arte. Egia esan, hormonek gerturatu ninduten neska harengan eta ez lagunak egiteko asmoak, 17 urtez neska eta mutil baten arteko laguntasuna gauza bakarrera mugatzen baita, edo nik hala deritzot gutxienez.

– “I like you” –esan zidan bere English bikainez beso artean nuen neska ilehoriak bat batean.

‘ “ai laik iu tu” -erantzun nion, filme amerikarretan egiten duten erara eta ez gutxi kostata gainera.

Barretxoa luzatu zidan. Nik barre inozoa eskaini

nion eta barrezka jarraitu zuen. Ondoren, ekintzek aurrea hartu ziguten. Zelai batera abiatu ginen. Han botata jiraka eta bueltaka aritu ondoren, larrutan egin eta zorua zapal-zapal eginda laga genuen. Topiko badirudi ere, nirea bihurtu zen guttiz, eta ni berea. Orduan goiza zen eta hotza gainera, baina gure gorputzen berotasunak ederki asko ahaztarazi zigun hori. Nik zeruan nengoela senti nezakeen soilik, edo ez banengoen bederen, zeruak ez zukeen askozaz hobeia izan behar. Han nengoen ni, milaka kilometrora sorterrria zuen neska ilehori bat beso artean nuela, belarrira “I love you” xuxurlatzen zidala, eta nik aditu gabe, berari so, galdera bat zelakoan, “bai” erantzuten niola. Maitasunaren fonologiak ez du hitzez ezta soinuez ere ulertzen; keinu eta begiradak dira bere hizkuntza.

Hitz egiteari ekin genion: neskak mundua eza-gutzeko zituen bere asmoak azaldu zizkidan” Windwood izeneko bere sorterritik, herri txikia berau, ihes egitea lortu zuen eta Europan zehar bidaiatzeari ekin. Dagoeneko Londres, Amsterdam eta Parisen izana zen... - azalpen hauek (ulertzen nituen neurrian) liluratu egiten ninduten-. Tonu berezi batez hitzegiten zuen, hitzak gozatuko bali-tu bezala, leku izen bakoitza dastatuz.-... alde egite-ko zorian zegoen, Parisera zihoan... Honi buruz hitzegitean begiak bizitu egin zitzaizkion. Ni haien urdinean galdu nintzen, txundituta. Eiffel dorrera igo eta bere izena oihukatzeke asmotan zebilen, nola edo hala Maxim’s-en bazkalduko zuen chef

frantziarren balizko bikaintasuna frogatzeko eta... Nahikoa zen, azalpen hauek bere planari atxeki nenkion eragin zuten, automatikoki gainera. Ez nuen bere onespenik eskatu; berarekin bidaiatuko nuela hasperen batean esan eta tren geltokian itxaron ziezadala eskatuz, korrika alde egin nuen etxeruntz.

Goizeko bederatziak ziren, jadanik esnatuta zegoen amak kexuka agurtu ninduen goizez etxeratzen nintzen guztietan bezala. Bere logelara jo nuen zuzenean, eta dirua lapurtzen ari nintzaiola, kexuak entzun nitzakeen oraindik. Jaramonik ez. Behar nuena zorro batean bildu (egongelatik hartutako Vodka botila bat barne) eta kalera irten nintzen “agur!!” oihukatuz.

Orduan, tren geltoki zaharrera heldu eta nire zain zegoen neska ilehori haren begi urdinak ikustean, ez nuen egitera nindoanaren inolako dudarik. Orain, atzera begiratzean, ez dut ulertzen zergatik egin nuen. Inpultso bat izan zen: nire bizitza, funtsean, inpultsoz osatua dago, maitatzea, batez ere. Neska begiurdin hura izan zen nik maitasuna ezagutzearen erruduna eta herriko geltoki zahar hura eskenaren lekuko bakarra: neska eta ni, egun luze bat iraungo zuen bidaiaria hastear, París konkistatzera. Egunduko hartako gauerdia aldera Lyon-era helduko ginen, bertan gaua igaro eta goizeko zortzietan Pariseruntz irteten zen trena hartzeko.

Ordurarteko bidaiaria ez genuen askorik hitzegin. Ni bere begien urdinean galtzen ahalegintzen banintzen ere, ezin nuen. Nire begiraden insis-

tentzia zela eta, hasieran harriturik begiratzen ninduen, geroago ez zidan begiradarik zuzentzen, eta azkenerako, egiten zuenean, mesfidantza puntu batez. Honela pasa genituen hainbat ordu konparatimendu hartan: isilik, gero eta astunagoa biltzen ari zen isiltasunean, Lyon-era heldu arte.

Gaueko hamabiak pasatxo izango ziren Lyoneko estazio zaharrera iritsi ginenerako. Trenetik jaistean erraldoia zela ikusi ahal izan nuen: andenak luze eta zabalak ziren; simetrikoki lerrokatu-rik, eta bakoitzaren erdialdean eserleku luzea zutela. Teilatua zutabe biribilduek eusten zuten; zutabe hauetako bakoitzean estazio zahar orotan izan ohi diren erloju handi eta biribil horietako bana, bi bozgorailuren aldamenean, zintzilikatu-rik.

Hurrengo goizean Pariserako trena irtengo zen andenera jo genuen, bera nire aurretik uneoro, eserleku luzerantz. Nigandik nahiko urruti jesarri zen, bestalderuntz begira, haserreturik bezala. Ez zidan so egiten, hotz baino hotzago ari zen nirekin jokutzen, aurreko gauekoa ahaztu izan balu lez. Denbora aurrera zihoan eta neska hura biziki musukatzeko irrikitan nengoenez, zerbait egin beharko nuela otu zitzaidan. Nik, besterik ezean, poltsan nuen Vodka botila atera eta begiratu ninduenean, keinu bidez botila eskeini nion. Bera, harriduz. “Oh, no thanks” esan eta berriro egin zuen bira. Zertxobait goibeldu nintzen haren erre-akzioa ikustean. Hala ere, neska hura musukatzeko asmoari amore eman ezinik, botila ireki nuen hiru

dzangada eder, hiru, emanez jarraian. Vodkak ezta-
rria erretzen zidan. Ez nuen gogoko, baina neska-
rengana gerturatzeko beharko nuen adorea eman-
go zidan. Berriro edan nuen: zurrutada bakarra,
luzea, ia amaitezina, botila erdiraino hustu arte.
Oraingoan, eztarria ez ezik, sabelaldea ere erre-
tzen zidan likido kolorgeak.

Erlojura begiratu nuen. Ordu bata. Neska geldi,
isilik, lurrari begira, eta ni, adorearen zain. Beste
dzangada bat. Adorerik ez. Beste dzangada bat.
Halako batean neska mugitzen hasi zen; pozaren
pozez bere gainera jauzi egiteko zorian izan nin-
tzen, baina poz hura amarru bihurtu zen lo egite-
ko eserlekuan etzaten ari zela ikustean, baita etsi-
pen, hordi eta esperantzarik gabe nengoela
erreparatzean. Akabo gau hartakoak! Ez begirada-
rik, ez musurik eta ez ezer! Azken zurrutada motz
batez botila hustu nuen. Erlojura begiratzean, ares-
tian ez bezala balantzaka urdurian zebilela ikusi
nuen, gutxienez ordu bata eta erdiak izango ziren,
gutxienez...

Oihu batek begiak kolpetik irekitzera bultzatu
ninduenean, goiza zela igarri ahal izan nuen.
Argitasunak ia itsutzen ninduen. Burua mila mailu
tipik kriskatzean sentituko nukeen sentsazio bera
sentitzen nuen. Jendea inguruan ikus nezakeen eta
“allez-allez” esanez esku batez zakarki bultzatuz jai-
kiarazten ninduen gendarme arlote bat, beste
eskuan Vodka botila huts bat zuela. Pertsona haien
artean, nire begiurdina bilatzen saiatu nintzen,
baina ez nuen aurkitu. Biziki larritu nintzen eta

gogorki oratzen ninduen gendarmearen esku zantarrak gainetik kentzen saiatu, era barregarri batean. Orduan, tren bat estaziora iritsi eta guztiak biratu ziren. Gendarme haren arreta galdu nuen, jarleku onenekin egiteko asmotan, bultzaka eta pilatuz zebilen jendea kontrolatzera abiatu baitzen. Jada ez ninduen inork begiratzen.

Nik begiurdinaren bila jarraitzen nuen, baina ezin nuen apenas ezer ikusi, zoroen pare trenean sartzen ari ziren pertsonak besterik ez. Denak barruratu eta trenak alde egitean, nire bakardadeaz konturatu nintzen. Anden luzearen bi aldeetara begiratu eta beste inor ez zegoela ohartu nintzen, urruntzen zihoan gendarme zakar hori baino ez. Eta erdian ni, bakarrik, zutik, eserleku baten ondolan, erloju biribil eta handi haietako bati so, zortziak zirela ikusiz eta nire nahasmena areagotuz zihoala. Bat-batean, desagerturik zirudien burukomina eta bihotzaren taupada azkar eta bortitzak elkartu ziren. Izutzen ari nintzen eta ez nekien zer egin, ezta zer pentsatu ere. Goragale izugarriak gainezkatu ninduen. Trenbideruntz belaunikatu nintzen neure txistuaz osaturiko aparra besterik ez botatzeko.

Ezin nuen aurreko gauaz ezer gogoratu. Ezin sinetsi nuen, eta ezin guztiz ulertu. Bankoan eseri nintzen eta itxaroteari ekin nion, neska hura berriro azalduko zen esperantzaz. Noizean behin alboan nuen erloju biribilari begirada bat bota eta denbora aurrera zihoala frogatu ahal nuen, eta neska ez zettorrela... Bederatziak..., jende gehiago..., beste

tren bat..., hamar eta erdiak..., jende gehiago..., beste tren bat..., gendarme arlotea..., baina bera ez. Gaueko bederatiak aldean, esperantza guztiak ahiturik, Pariseruntz zihoan azken trenean sartzea erabaki nuen, nire gogotik neska hura aldendu ezinik.

Lo egiten saiatu nintzen, baina asmoa lokuluxka motz eta urdurietan besterik ez zen gauzatu. Dena ilun zegoen, ezin nuen ezer ikusi; haatik, ihintzak bustiriko zelai berdeak nituen gogoan. Halaxe zen, egunak argitu zuenerako, konpartimenduko leihoa berdetasanaren erakusgai bihurtu zen: belaze lau eta berdeak gehienetan, etxe txiki multzoz osaturiko herri txikiak tarteka eta tren azkarren bat albotik ziztu bizian pasatzen, aldizka. Azkenik Parisera heldu ginen; trenak abiada jaitsi eta oszilaketak geldo baina bortitzagoak biltzen zirenean. Nik adi jarraitzen nuen leihoak erakusten zidanari begirik kendu ezinik: hasieran hainbat etxe, ondoren etxe gehiago, kaleak, jendea, ibaia, Eiffel dorrea urrunean. “C’est Paris!” bururatu zitzaidan. Barrezka nengoen jada, emozioak gainezkatuta. “C’est Paris!!!”.

“Passengers with destination Bilbao, please go through gate six. Your plane will take off in thirty minutes” esaldi ozenak esnatu nau nire gogoetatik. Jaiki egin naiz eta une batez, txaien amaigabeko ilarararuntz doan atea edo bozgorailutik hitzegin duen emakumezkoak aipatu duen atea zeharkatzearen artean

duda-mudan egon naiz. Aitzitik, gertatuak gertatu-
ta aurrera jarraitu behar, beti aurrera...

Trenetik irten bezain pronto, ordea, emozio hori bildur bilakatu zen, neure burua pertsona uholde batean murgiltzen ikusi nuenean. Gogoan gelditu zitzaidan irudia da, beldurrezko filme baten eskena bailitzan. Hamazazpi urte dituen pertsonarentzat, ez da munduan hiri handi bateko tren estazioan bakarrik eta noraezean izaterik baino gauza beldurgarriagorik. Zin dagit! Egin nuen lehenengo gauza bertatik irtetea izan zen, oxigeno bila.

Ondoren nire hankek “Champs Elisees” –etara eraman ninduten, Sena-raino eta azkenik Eiffel dorreraino, baina ez nuen inongo maparen beharrik izan, bideak berak eraman baininduen haraino. Ondotxo eraman ere. Izan ere, Parisen bide guztiek Eiffel dorrera daramate. Han pausatu nintzen, metalez eginiko erraldoi haren aurrean; denbora askoz, auskalo zenbat minutuz. Atzera biratzean emakume bat ikusi nuen, geldi egon nendin eskatuz, karikatura bat marraztuko zidala esanez.

Horrela ezagutu nuen Catherine. Hogeita hamar urte pasatxo zituen emakumea, margolaria, eskultorea, artista finean, txorora, artista guztiak bezala. Palais Royale-tik gertu, quartier Sain-Roch izeneko kale tristean zegoen bere etxera eraman ninduen, eta berarekin bizitzen gelditu nendin erregutu zidan. Hala egin nuen. Hasieran oso gus-

tora nengoen eta egoera dibertigarria ere bazen: “tu a un petit pois dans la tête” esaten zidan xelebrea iruditzen zitzaion zerbait egiten nuen bakoi-tzean; maitakor begiratzeko ninduen, ama batek bere semearekin begira diezaiokeen eran. Azkar asko ikasi nuen “mon amour, je t’aime” esaten, “mon amour, je te désise” pentsatzen nuela. Emakume hark erakutsi zizkidan amodioan (sexuari buruz ari naiz, noski) dakizkidan guztiak. Emakume asegaizagorik!

París itzela iruditzen zitzaidan. Era guztietako jendea aurki nezakeen bertan. Kaleratzea egunero abentura berri bat bihurtu zen, baina etxean ego-teak gero eta gehiago gogaitzen ninduen. Emakume haren bizimodu nahasiak: egunez lo, gauzez lan, bere lagun artistak, bizilagunak... Orduan burrukak hasi ziren, beti berak sorturiko norgehiagokak, eta ondoren bere nigarrak, mehatxuak, erreguak... Denborak aurrera eta gure arteko liskarrak areagotuz. Monotonia miserableenean erori zen nire bizitza. Edateari ekin nion emakume hark sortutako buruhaustea zirela eta. Dagoeneko ez genuen larrurik jotzen eta ahal zuen gizon guztiekin oheratzen zela banekien. Emakume hura gorrotatzera heldua nintzen.

Gau batez horditurik etxera iritsi eta gizon batekin ohean zela harrapatu nuen. Egoerak ez ninduen harritu, noizbait gertatuko zela espero nuela-ko, eta fisik esan gabe, nire gauzak bildu eta “au revoir” esanez, oraingo honetan neuk aldegin nuen. Betirako.

Urte batzuk aurretik, zakur ametsak lepo heldu bezala, dezepzioak lepo etxera itzultzeko. Aireportu handira abiatu nintzen, hiri hartatik urrundu eta París madarikatua ahazteko irrikaz. Bertako jende ibaian murgildu nintzen eta hartu behar nuen errenka jarraiturik, nire bizitzako azkenengo urteak lapurtu zikidan (hala iruditzen zitzaidan orduan) emakume hark bete zuen nire gogoa. Nire gorputzak aurrera jarraitzen zuela, nire gogoa han gelditu zen. Pausoa erabat moteldu nuen. Ez nuen ulertzen egindakoa; Parisen emandako denbora hura; nola frantziar guztiek hasperen egiten zuten Parisi buruz hitzegitean; “París, maiteminduen hiria”. Babukeriak!! Baina emakume zahar batek atera ninduen nire gogoetatik konturatu orduko. Larrosa sorta esku artean zuen emakume zaharrak, horietako bat erosi niezaion erregutzen zidan “c’est Paris, c’est l’amour” esanez. “C’est la merde” bota nion zakarki eta aurrera jarraitu nuen. Biratu eta emakumearen aurpegiari so egin banio, malko bi ikusiko nituzkeen haren masail zimurtuetan behera, baina aldi berean, nire bihotzak bere aurpegiaren zimurdurak baino pitzadura sakonagoak zituela ikusiko nukeen... Bihotza pitzaduraz josia... Parisek eta atsoak erreferentzia eginiko “l’amour” horrek eraginda... “C’est la vie!!”...

Hegazkinean nagoela Paris eta Euskal Herria banatzen dituzten bi ordu eskasak motz baino

motzagoak gertatuko zaizkidala iruditzen zait. Dudan bildurra ahazten ahalegintzen naizen arren, ezin dut. Senideak, herria, lagunak, nola ote daude? Denborak nigatik itxaron al du? Ziurrenik ez, dena aldatuz doa eta.

Azken batean, bizitza kotxeen gurpilak bezalako-koa da; biraka dabil noizbait “pott” egin eta lehertzen den arte. Ordurarte, zapaltzen ditugun lekuetan gure urratsa lagatzen dugu, noizbehinka. Betiere lekuek gudan beraien urratsa lagatzen dutela. Euskal Herrira bueltatzera noan honetan, nire ibilteak gauza bat irakatsi dit behintzat: beste lekuetan ere, zakurrak oinutsik dabiltzala, eta Euskal Herriaren orlegia Paris zaharraren grisa bezain ederra dela.

AMAIA.

P.S. “Zilegi bekit une honetan, narradore gisa, gogoeta bat eranstea, hau da, maitemintzea degradazio moeta bat dela abertitzea.”

J. Sarrionandia